

A16

Ene laztana, ene lindea...

1184. orriaren aurkian eta ifrentzuan idatzirik dago poema hau, baina dirudienez ez dago amaituta, gehiago idazteko lekua zegoen arren paperean. Hamar silabako eta zortzi silabako distikoen segidak dira, gure ustez, norbaitek lerroak launaka biltzen dituen zeinu bat idatzi duen arren; errima-aldaketak (-rik 1-72 lerroetan, -ean 73-96 lerroetan eta -iok 97-101 lerroetan) adierazten du nola bildu behar diren distikomultzoak.

Ifrentzuko eskuineko aldean, bigarren zutabea idazteari ekin dio beste esku batek, poema honetako konjuruua osatu nahian (89-96 lerroak); esku horrek aldatu du 83. lerroa ere. Litekeena da esku hori Francisco Lopez Luzuriagarena izatea, lerroen ondo-ondoan dagoen sinaduraren arabera; sinadura hori dago 1159r, 1161r eta 1177r orrialdeetan ere, baina ezin dugu ziurtatu testua beste inon aldatu duen ala ez. Argi dago ahapaldi berria aurrekoaren osagarri gisa idatzia dela, lehenengo testuaren egitura (“*tortolatxoa ... konjuraetan zaitut*”; “*unikornio ... konjuraetan zaitut*”; “*pelikanoak ... konjuraetan zaitut*”) eta errima berarekin (-ean); horregatik tartekatu dugu errimaren arabera legokiokeen lekuan, letrakera etzanez bereizita.

Poemak lau parte ditu. Lehenengoan (1-42 lerroak), berak zerbitzen duen laztan krudelari hitz egiten dio mutilak, erruki eske; mutilak ezin du linda damea burutik kendu, eta neskak, berriz, ez dio batere kasurik egiten. Bigarreanean (43-68 lerroak), Amore Jaunari hitz egiten dio; mutila aldi berean damatxoaren eta Amore Jaunaren zerbitzari denez, dama krudelaren jarrera amodioaren aurkako jokabidea dela deritzo eta hori konpontzen laguntzeko eskatzen dio. Hirugarren parteko hitzak (69-72) berriz ere damarentzat (*ene perlea*) dira, konjuruaren aurrean haren gogoia irekitzeko. Laugarren partean (73 hh.), konjuruko hitzak biltzen dira, usapala, adarbakarra eta pelikanoa eredu gisa aurkezturik.

Maitasun-konjuruek XVI. mendeko literaturan duten eginkizunaz, ikusi Vian Herrero (1997).

<1184r>	Ene laztana, ene lindea, banago beti gaxorik; ene negarrau enzun egizu, badozu borondaterik. Zeure bihotza bera bekizu, ¹	5
	badozu piedaderik; oi ² ni honela penaetan ez dozu errazoarik. ³ Ni zugaz amoruagaiti eztaukat nik beharrik, ⁴	10
	zegaiti ene eskuan ez zan egiten beste gauzarik. ⁵ Neure bihotza hor daukazu, ondo kateaz loturik. Libertadea haregaz dago;	15
	ni, barriz, beti bakarrik.	

¹ *bera bekizu*: ‘bigundu bekizu’; *beratu* aditza da.

² *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

³ *penaetan / ez dozu errazoarik*: ‘penaetako ez dozu errazoarik, atsekabetzeko ez duzu arrazoirik’.

⁴ *beharrik*: ‘errurik’.

⁵ *ene eskuan ez zan / egiten beste gauzarik*: ‘ene eskuan ez zegoen beste gauzarik egitea (maitemintzea baino)’.

Pensamentuau daukadala zuregan enklabadurik, neurgaz sekula egiten ez dot zuregaz baxe ⁶ konturik. ⁷	20
Zuk, barriz, nigaz ez daukazu bapere memoriarik sekula, oita ez badeutsut egiten serbiziorik; kausaetan dau ⁸ ez jakiteak	25
zure gogoko barririk; bestela bere nigan ez dago zurea ez dan gauzarik; zure izenaz oita daukat guztiak ⁹ seinaladurik;	30
zugana deudan amorioak oi inon ez dau kaburik; ¹⁰ oi zukan, barriz, piedadeak sekula komienzurik: linda damea, ¹¹ erruki nauka, ¹²	35
ez dodan gero ¹³ kulparik. Zu lakoagan ez leuke behar krueldadeak parterik; ¹⁴ Amoreorrek egin ez oi dau kurelez konfradiarik. ¹⁵	40
Oi zuk ni ondo trataetako asko da nigan kausarik. ¹⁶ Amore poderoso, jauna, ni belauriko jarririk mesede baten eske nagozu, ¹⁷	45
ez beaxako ¹⁸ barbarik; damatxo baten amoreminak ¹⁹	

⁶ *baxe*: ‘baizen, baizik’.

⁷ *neurgaz sekula egiten ez dot / zuregaz baxe konturik*: ‘sekula ez dut neure buruaz ardura hartzen, zutaz baizik’.

⁸ *kausaetan dau*: ‘egoera hau (nik zuri serbizio ez egitea) kausatzen du’; ulertu dugunaren arabera, esan nahi du neskak zer pentsatzen edo sentitzen duen jakin gabe ez dela ausartzen hari gorte egiten.

⁹ *guztiak*: A16: 27-28 lerroetan aipatutako *gauza* guztiak, alegia.

¹⁰ *kaburik*: ‘akaburik, amaierarik’.

¹¹ *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa; euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu.

¹² *erruki nauka*: ‘Berorrek errukian eduki nazala, berorrek errukia eduki dezala niretzat’; poetak damari berorika egiten bide dio hemen, nahiz eta aurreko guztian *zu* erabili duen.

¹³ *ez dodan gero*: ‘ez baitut, ez dudanez’.

¹⁴ *parterik*: ‘indarrik, lekurik’.

¹⁵ *Amoreorrek egin ez oi dau / kurelez konfradiarik*: ‘Amorea ez ohi da krudelekin elkartzen’.

¹⁶ *asko da nigan kausarik*: ‘kausa asko da nigan’.

¹⁷ *nagozu*: ‘nagokizu’.

¹⁸ *beaxako*: ‘beazako, mehatxuzko’.

	narabil desterradurik.	
	Ene bihotzau ha serbitzeko	
	jarri zan obligadurik;	50
	sekula ondo harzaiten ²⁰ eztau	
	oi nik desodan ²¹ gauzarik;	
	sekula goardaetan eztau	
	oi zure mandamenturik;	
	estimaetan ezertan eztau	55
	oi zure serbitzaririk.	
	Honetan zuri egiten jatzu	
	oi asko agrabiorik;	
	dama kurelau, arren, efinzu ²²	
	oi ondo gaztigaturik. ²³	60
	Sekula bestek oi eztagian	
	hartu atrebimenturik,	
	konjuro gogor parebaga bat	
	daukat ordenadurik.	
	Otorgaduko deustazula	65
	asko deut esperanzarik;	
	hasi gura dot zuregan, jauna,	
	oi baietz konfiadurik.	
<1184v>	Ene perlea, enzun egizu,	
	badezu borondaterik;	70
	zure entendimentua bego	
	gutxitan iratzarrik. ²⁴	

Conjuro

	Tortolatxoa ²⁵ ebiltan da	
	bakotxik ²⁶ maiatz hilean,	
	bere laguna galdu jakin ²⁷ da ²⁸	75
	tristerik soledadean.	
	Konjuraetan oi eta zaitut,	

¹⁹ *amoreminak*: ‘maiteminak’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodioa (arrazoiak askotarikoak izan daitezke).

Bestalde, kontuan izan *damachoa* dela amoremina sorrarazi duena, ez amoremina duena.

²⁰ *arzaiten*: ‘hartzen’.

²¹ *desodan*: ‘esaten diodan’.

²² *efinzu*: ‘ipin ezazu’.

²³ *gaztigaturik*: ‘abisaturik’.

²⁴ *zure entendimentua bego / gutxitan iratzarrik*: ‘zure adimena bego iratzarri gabe’; adimena konjururako prest egon dadila esan nahi du, hipnotizatu moduan.

²⁵ *Tortolatxoa*: ‘usapaltxoa’; Covarrubiasen arabera (1611, s.v. *tortola*), usapala emakume alargunaren sinboloa da, “laguna galdurik” kastitatea gorde behar duena.

²⁶ *bakotxik*: ‘bakarrik’.

²⁷ *galdu jakin*: ‘hari galdu’; *jaki*- hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, **edin* aditzaren aldaera bipertsonala (NOR-NORI) baizik ez da.

²⁸ *da*: ‘eta’.

kurela, ²⁹ poridadean, ³⁰ gabaz-egunaz oi zabilzela ³¹ negarrez ene atzean.	80
Unikornio, ³² animal fortitz ³³ animal hoen artean, umiliaetan oi eta jako dama bat dakusenean.	85
Konjuraetan oi eta zaitut, ohean zautzidenean ³⁴ gogaberatu zakezkedala ³⁵ begioz nakutsunean. ³⁶ <i>Pelikanoak</i> ³⁷ <i>amorioz</i> ³⁸ <i>umeak dagianean</i> , ³⁹	90
<i>bere odolaz mantenitzen dau</i> <i>guztiak hazi artean.</i> <i>Konjuraetan zaitut, laztan,</i> <i>ni ga borz nabilean</i> , ⁴⁰ <i>zeure bularrok jan dagizula</i> ⁴¹ <i>zeurgana sartu artean</i> . ⁴²	95

Prosigue

Konjuraetan oita deutsut
gorputzeango⁴³ haragiok,⁴⁴

²⁹ *kurela*: Bera maite ez duen dama krudelari zuzentzen dio poetak konjuria.

³⁰ *poridadean*: ‘argi eta garbi, itzulingerurik gabe’.

³¹ *zabilzela*: ‘ibil zaitezela’.

³² *Unikornio*: Kastitatearen sinboloa da; cf. Covarrubiasen arabera (1611, s.v. *unicornio*), dontzeila bat ikusten duenean haren gonaren gainean etzaten da mantsoturik, eta ehiztariak iristen direnean erraz harrapatzen dute.

³³ *fortitz*: ‘bortitz, sendo’.

³⁴ *zautzidenean*: ‘etzinik (etzanik) zaudenean’.

³⁵ *gogaberatu zakezkedala*: ‘gogabera zakizkidakeela, maitasunez hunkitu zakizkidakeela’.

³⁶ *nakutsunean*: ‘ikusten nauzunean’.

³⁷ *Pelikanoak ... sartu artean*: A16: 89-96 lerroak beste idatzaldi batean idatzi dira, geroago, paperaren zuriunean, beste zutabe batean, agian beste esku batez.

³⁸ *Pelikanoak amorioz*: Pelikanoa maitasunaren sinboloa da Erdi Aroko Europan, eta hala agertzen da hala literaturan nola gainerako arteetan. Pentsatzen zen pelikano-amak bere bularra mokoka zabaldu eta hango odola ematen ziela kumeei, jateko.

³⁹ *umeak dagianean*: ‘umeak egiten ditunean’.

⁴⁰ *ni ga borz nabilean*: Testua palegrafikoki aski garbia iruditzen zaigu, baina ez dakigu zer esan nahi duen. Patri Urkizuk (Urkizu 2004) *ni gabaz nabilean* irakurri du.

⁴¹ *jan dagizula*: ‘jan ditzazula’.

⁴² *zeure bularrok jan dagizula / zeurgana sartu artean*: Gure ustez, *bularrak jatea*, hemen, neskaren bularrak (edo altzoa, edo aurrealdea) mutilarentzat maitasunez zabaltzea da (pelikanoak ere bularrak mokoka janez zabaltzen baitu bere paparra, kumeak elikatzeko); baina ez dakigu ziur *zeurgana sartu* behar dena neska bera den (pelikanoak ere paparra zabaltzen du bere mokoa barrura sartzeraino) ala mutila den neskaren barrura sartu behar dena (pelikanoaren kumeak ere agertzen dira irudi askotan amaren paparretik mokoka). Linschmann-Aresti legearen arabera, lehenengo irakurketa litzateke egokiena, *zeurgana* forma indartuak adierazten duenez.

⁴³ *gorputzeango*: ‘gorputzeko’.

nigana manso dakarkezula⁴⁵
zeure begitxo lindo biok.

100

Prosigue

Munduan ezta
[...]

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A16 – Ene laztana, ene lindea... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

⁴⁴ *gorputzeango haragiok*: Formula ezaguna da, batez ere balada zaharretan: cf., adibidez, Peru Abendañokorena: *Jaun Peru Abendañokok esala: / Oinetako lurrau jabilt ikara, / Gorputzeko lau haragiok berala* (XV. m.; TAV 3.1.6.).

⁴⁵ *dakarkezula*: ‘geroan ekar ditzazula’.